Hernaniko Udala

| | |
|---|---|
| **JANARI-FURGONETETAN EDO KALEAN JARTZEN DIREN POSTUETAN EGITEN DEN PRESTATUTAKO JAKIEN NOIZBEHINKAKO SALMENTA ARAUTZEN DUEN UDAL-ORDENANTZA** | **ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA VENTA OCASIONAL DE ALIMENTOS PREPARADOS EN FURGONETAS RESTAURANTE O PUESTOS UBICADOS EN LA VÍA PÚBLICA** |
| **ARRAZOIEN AZALPENA** | **EXPOSICIÓN DE MOTIVOS** |
| Azken urteetan, merkataritza establezimendu finkoetatik kanpo egiten den salmenta baimentzeko eskaera kopuruak gora egin du nabarmen Hernaniko Udalerrian. Ondorioz, hala profesional horiek egiten dituzten eskaerei modu ordenatu batean erantzun ahal izateko, nola gaiaren inguruko legediari egokitzeko, ordenantza baten beharra antzeman du Hernaniko Udalak. | En los últimos años, el número de solicitudes de autorización de venta fuera de los establecimientos comerciales fijos ha aumentado notablemente en el Municipio de Hernani. En consecuencia, el Ayuntamiento de Hernani ha detectado la necesidad de una ordenanza que responda de forma ordenada a las demandas de este tipo de profesionales y que, al mismo tiempo, se adapte a la legislación vigente en la materia. |
| Zentzu horretan, eta, 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoaren arabera; eta, zehazki 17. artikuluaren lehenengo apartatuaren 2), 10) eta 34) atalen arabera, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: espazio publikoetan bizikidetza-harremanak antolatzen eta kudeatzen; osasun publikoa sustatzen, kudeatzen, defendatzen eta babesten; eta, barne-merkataritza antolatzen eta kudeatzen. Zehatzago esanda, merkatu, hornidura-merkatu, azoka, lonja, hiltegi eta kalez kaleko merkataritza antolatzen eta kudeatzen. Hor sartzen dira, era berean, txikizkako merkataritza eta merkataritzako ekipamendu handiak planifikatzea eta antolatzea, hirigintza-antolamenduko irizpideei eta lurzoruaren arrazoizko erabilerari erantzunez, bai eta ibilgailuak eta bestelako salgaiak espazio publikoetan salerostearen erregulatzea, ikuskatzea eta arlo horretako zehapen-ahalmena. | En este sentido, y de acuerdo con la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi y, en concreto, con los apartados 2), 10) y 34) del apartado primero del artículo 17, los municipios podrán ejercer competencias propias en los siguientes ámbitos materiales: ordenación y gestión de las relaciones de convivencia en el espacio público; promoción, gestión, defensa y protección de la salud pública; y ordenación y gestión del comercio interior. En concreto, lo relativo a la ordenación y gestión sobre mercados, abastos, ferias, lonjas, mataderos y comercio ambulante, incluyendo igualmente la planificación y ordenación del uso comercial al por menor y grandes equipamientos comerciales atendiendo a criterios de ordenación urbanística y utilización racional del suelo, así como la ordenación, inspección y sanción en materia de compraventa de vehículos y otros artículos en espacios públicos. |

| | |
|---|---|
| Bestalde, ordenantza hau egiterakoan bai eta ordenantza hau aplikatzerakoan ere, sentsibilitate ezberdinak kontuan hartu behar dira: herritarrenak, bizilagunenak, dendarienak, ostalarienak, saltzaile ibiltarienak eta kontsumitzaileenak. | Por otro lado, a la hora de elaborar esta ordenanza, así como de aplicarla, hay que tener en cuenta las diferentes sensibilidades: ciudadanas, vecinales, del sector comercial, hostelero y de la venta ambulante y de la personas consumidoras. |
| Horiei jarraiki, eta, uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Araua Erregulatzailerekin bat eginez, egin da ordenantza hau, betiere indarrean dagoen gainerako araudiari jarraiki, lehiakortasun librearen barruan eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak errespetatu daitezen bermatuz. | En su virtud, y de conformidad con la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, se elabora la presente Ordenanza, de acuerdo con el resto de la normativa vigente, dentro de la libre competencia y garantizando el respeto de los derechos de las personas consumidoras y usuarias. |
| Era berean, baimenak emateko ezarri diren balorazio irizpideak honako printzipio zein beharretan oinarritu dira: hizkuntza ofizialen erabilera, ingurugiroaren zaintza eta tokiko ekonomian zein komunitatean inpaktu positiboa edukitzea. | Asimismo, los criterios de valoración establecidos para la concesión de las autorizaciones se han basado en los principios de uso de las lenguas oficiales, la preservación del medio ambiente y el impacto positivo tanto en la economía local como en la comunidad. |
| I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK. | TÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES. |
| 1. artikulua. Ordenantzaren xedea. | Artículo 1. Objeto de la ordenanza. |
| Ordenantza honen xedea da Hernaniko Udalerrian janari-furgonetetan edo postuetan egiten den prestatutako jakien kale-salmenta baimenak emateko deialdia arautzea, bai eta salmenta hori arautzea ere. | Es objeto de la presente Ordenanza regular la convocatoria para la concesión de autorizaciones de venta ambulante de alimentos preparados en furgonetas o puestos de comida en el término municipal de Hernani, así como la regulación de dicha venta. |
| 2. artikulua. Aplikazio-eremua. | Artículo 2. Ámbito de aplicación. |
| Ordenantza hau udalerriko erabilera publikoko aire zabaleko espazio publiko guztiei aplikatzen zaie. | Esta ordenanza es de aplicación a todos los espacios públicos al aire libre de uso público del municipio. |
| Bestalde, bi baimen mota bereizten dira: jaiei lotutako okupazio-baimenak eta jaiekin | Por otro lado, se distinguen dos tipos de permisos de ocupación: los vinculados a |

| | |
|---|---|
| zerikusirik ez dutenak. Udalak antolatzen dituen jaiak dira: inauteriak, sanjoanak eta euskal jaiak.<br><br>Ordenantza hau ez da aplikagarria izango interes bereziko edo udal-onurako ekintzak garatzeko beharrezkoak diren eremu publikoaren okupazioetan. Interes bereziko edo udal-onurako ekintzak alkateak izendatuko ditu dekretu bidez. | fiestas y los ajenos a las fiestas. Son fiestas que organiza el Ayuntamiento: carnavales, sanjuanes y euskal jaiak.<br><br>Esta Ordenanza no será de aplicación a las ocupaciones del espacio público necesarias para el desarrollo de actuaciones de especial interés o utilidad municipal. Los actos de especial interés o utilidad municipal serán designados por decreto de Alcaldía. |
| **3. artikulua. Aplikatu beharreko araudia.**<br><br>Ordenantza hau honako arau hauek emandako ahalmenen arabera egin da: Toki-Araubidearen Oinarriei buruzko 1985eko Legearen 49. eta 84.bis 1.a) artikuluak; Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea, abuztuaren 28ko 1373/2009 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Herri Administrazioen Ondarearen Legearen Erregelamendu Orokorra, eta Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 77. artikulua.<br><br>Halaber, Ordenantza hau honako lege hauen arabera egin da: 7/1994 Legea, maiatzaren 27koa, Merkataritza Jarduerari buruzkoa, 7/2000 Legea, azaroaren 10ekoa, Merkataritza Jardueraren 7/1994 Legea aldatzekoa eta 7/2008 Legea, ekainaren 25ekoa, Merkataritza Jardueraren Legearen bigarren aldaketarena. | **Artículo 3. Normativa aplicable.**<br><br>La presente Ordenanza se elabora de acuerdo con las facultades que le atribuyen los artículos 49 y 84.bis 1.a) de la Ley de Bases de Régimen Local de 1985, la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas, el Reglamento General de la Ley del Patrimonio de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1373/2009, de 28 de agosto, y el artículo 77 del Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales.<br><br>Asimismo, la presente Ordenanza se ha elaborado de acuerdo con la Ley 7/1994, de 27 de mayo, de la Actividad Comercial, la Ley 7/2000, de 10 de noviembre, de modificación de la Ley 7/1994, de la Actividad Comercial y la Ley 7/2008, de 25 de junio, de segunda modificación de la Ley de la Actividad Comercial. |
| **4. artikulua. Baimenen izaera.**<br><br>Bide publikoaren okupazioak eta ustiapenak ohiko erabilera berezien kategoria juridikoan sailkatuta daude; jabetza-eskubiderik gabe ematen dira eta beste pertsonen eskubideak erabiltzeari ezertan eragotzi gabe. Aurrez, udalaren baimena behar da, eta hori ordenantza honetan aurreikusitakoaren arabera emango da. | **Artículo 4. Naturaleza de las autorizaciones.**<br><br>Las ocupaciones y aprovechamientos de la vía pública se clasifican en la categoría jurídica de usos característicos, sin derecho de propiedad y sin perjuicio del ejercicio de los derechos de las demás personas. Requieren previa autorización municipal, que se otorgará conforme a lo previsto en esta ordenanza. |

| | |
|---|---|
| Baimen horiek aldi batekoak izango dira eta prekarioko lagapenak dira: atzera bota daitezke interes publikoko arrazoiengatik, kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik gabe. Partikularrak ez du baimena eskuratzea bermatzen dion eskubiderik, hortaz, baimena ematea hautazkoa da; edonola ere, hartutako ebazpena arrazoitu beharra dago.<br><br>Era berean, zoru publikoa okupatzeko baimendutako aldiak aldatu egin daitezke hauen ondorioz: gizarte gaiekin, kulturarekin, turismoarekin, merkataritzarekin edo jaiekin lotutako jarduerak, obrak edo ekitaldi publikoak, udalak antolatutakoak edota baimendutakoak. Halaber, aldi horiek aldatu egin daitezke beste interesdun batzuek jarduerak egin behar badituzte, eta jarduera horiek administrazio honek baimendu beharreko eskubideekin lotuta daudenean.<br><br>Baimenen titularren arrisku eta menturan eramango da aurrera jarduera.<br><br>**II. TITULUA. ZEHAZTAPENAK.**<br><br>**5. artikulua. Bete beharreko baldintzak.**<br><br>1. Jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda egotea dagokion epigrafean eta ordainketak egunean izatea.<br>2. Gizarte Segurantzan alta emanda egotea eta kuoten ordainketak egunean izatea. Baldintza hori jardueraren ardurapean dauden langileei ere aplikatuko zaie. Langileen datuak berariaz adierazi beharko dira baimen eskaera zehatzak egiterakoan.<br>3. Egokitzen diren tasak ordaintzea, ezarritako epeetan.<br>4. Udalarekin zorrik ez izatea. Baldintza hori ofizioz egiaztatuko da.<br>5. Ekonomia jardueraren arriskuak estaltzen dituen erantzukizun zibileko asegurua edukitzea eta ordainduta egotea.<br>6. Araudi espezifikoek ezarritako baldintza higieniko-sanitarioak, segurtasunekoak edo bestelakoak betetzea.<br>7. Janari-furgonetaren edo postuaren neurriak udalak adierazitako kokalekura egokitzea. | Estos permisos tendrán carácter temporal y de cesión en precario, pudiendo ser revocados por razones de interés público, sin derecho a indemnización. La persona particular no tiene derecho que se le garantice la obtención del permiso, por lo que su concesión es potestativa, debiendo motivarse en todo caso la resolución adoptada.<br><br>Asimismo, los periodos autorizados para la ocupación del suelo público podrán variar como consecuencia de actividades, obras o actos públicos, organizados u autorizados por el Ayuntamiento, relacionados con asuntos sociales, culturales, turísticos, comerciales o festivos. Asimismo, estos períodos podrán ser modificados cuando se trate de actividades que deban ser realizadas por otras personas interesadas y estén vinculadas a derechos que esta Administración debe autorizar.<br><br>La actividad se llevará a cabo a riesgo y ventura de las personas titulares de las autorizaciones.<br><br>**II. TITULO. ESPECIFICACIONES.**<br><br>**Artículo 5. Requisitos a cumplir.**<br><br>1. Estar de alta en el correspondiente epígrafe del Impuesto de Actividades Económicas y estar al corriente de pago.<br>2. Estar de alta en la Seguridad Social y al corriente en el pago de cuotas. Este requisito se aplicará también al personal a cargo de la actividad. Los datos del personal deberán constar expresamente en las solicitudes de permiso específicas.<br>3. Abonar las tasas que correspondan en los plazos establecidos.<br>4. No tener deudas contraídas con el Ayuntamiento. Este requisito se comprobará de oficio.<br>5. Disponer de un seguro de responsabilidad civil abonado que cubra los riesgos de la actividad económica.<br>6. Cumplimiento de las condiciones higiénico-sanitarias, de seguridad u otras establecidas por las normativas específicas.<br>7. Que las dimensiones de la furgoneta o puesto de comida se adapten a la ubicación |

| | |
|---|---|
| | indicada por el Ayuntamiento. |
| **6. artikulua. Esleipen-zerrendaren osaketa eta eskaeren balorazioa.** | **Artículo 6. Configuración de la lista de adjudicación y valoración de solicitudes.** |
| Baldintzak betetzen dituzten eskaerekin esleipen-zerrenda bat osatuko da eta baimenak zerrenda horren araberako hurrenkera jarraituz emango dira. Aurkeztutako eskabideak 7. oinarrian adierazitako balorazio-irizpideen arabera aztertu eta ordenatuko dira. Puntuazioetan berdinketa gertatuz gero, antzinatasunaren arabera ordenatuko dira eskaerak zerrendan. Hau da, Hernaniko Udalerrian zerbitzu bera eskaintzen doazen antzinatasunaren arabera. | Con las solicitudes que cumplan los requisitos se confeccionará una lista de adjudicación y las autorizaciones se otorgarán por orden. Las solicitudes presentadas serán analizadas y ordenadas de acuerdo con los criterios de valoración señalados en la base 7. En caso de empate en las puntuaciones, la relación de solicitudes se ordenará por orden de antigüedad. Es decir, en función de la antigüedad con la que vayan prestando el mismo servicio en el Municipio de Hernani. |
| Eskabideak deialdiaren epetik kanpo aurkezten badira eta eskatzen diren baldintzak betetzen badira, indarrean dagoen zerrendaren amaieran sartuko dira. | Si las solicitudes se presentan fuera del plazo de la convocatoria y se cumplen los requisitos exigidos, se incluirán al final de la lista vigente. |
| **7. artikulua. Balorazio irizpideak eta puntuazioak.** | **Artículo 7. Criterios de valoración y puntuaciones.** |
| Bi puntuazio mota bereizten dira: finkoak eta aldakorrak. Puntuazio finkoaren bidez arautzen diren kontzeptuetarako, puntuazio osoa edo 0 puntu lortu ahal izango dira. Puntuazio aldakorretan 0 eta ezarritako maximoa bitartean puntuatu ahal izango da. Azken kasu horietan, gutxieneko estandarrak betez gero, puntuazio onena lortzen duen eskatzailearen arabera ezarriko dira gainerakoenak. | Se distinguen dos tipos de puntuación: fijas y variables. Para los conceptos regulados por la puntuación fija se podrá obtener la puntuación total o 0 puntos. En las puntuaciones variables se podrá puntuar entre 0 y el máximo establecido. En estos últimos casos, si se cumplen los estándares mínimos, los del resto se establecerán en función de la persona solicitante que obtenga mejor puntuación. |
| <u>Puntuazio finkoak</u> | <u>Puntuaciones fijas</u> |
| Zerbitzua euskaraz ematea* — 20 puntu | Prestación del servicio en euskera* — 20 puntos |
| Gizarte-ekonomiako erakundea izatea — 10 puntu | Ser entidad de la economía social — 10 puntos |
| Saltzen den produktuen ekoizlea izatea (salmenta zuzena) — 10 puntu | Ser productor/a del producto en venta (venta directa) — 10 puntos |
| Hernanin alta emandako jarduera ekonomikoa izatea — 10 puntu | Tratarse de actividad económica dada de alta en Hernani — 10 puntos |
| Hernaniko tokiko monetan — 5 puntu | Ofrecer la posibilidad de pagar en — 5 puntos |

| | |
|---|---|
| ordaintzeko aukera eskaintzea | moneda local de Hernani |
| Lantaldea lagun batez baino gehiagoz osatuta dagoenean, % 40 edo gehiagoan emakumeek osatzen badute — 5 puntu | Cuando el equipo de trabajo esté compuesto por más de una persona, si en un 40% o más está formado por mujeres — 5 puntos |
| Puntuazio aldakorrak | Puntuaciones variables |
| Hernaniko ekoizleen produktuak nagusitzea lehengai eta salgaien artean — 10 puntura arte | Predominio de productos de productores/as de Hernani entre las materias primas y mercancías — Hasta 10 puntos |
| Ibilgailuaren edo postuaren gordelekua salmenta puntutik duen gertutasuna (km-etan) — 10 puntura arte | Proximidad del almacén del vehículo o puesto al punto de venta (en km) — Hasta 10 puntos |
| Energia berriztagarrien sistemak instalatzea — 5 puntura arte | Disponer instaldos sistemas de energías renovables — Hasta 5 puntos |
| Hornitzaile nagusiak Hernaniko komertzio txikiak izatea — 5 puntura arte | Que los principales proveedores sean los pequeños comercios de Hernani — Hasta 5 puntos |
| Produktu ekologikoak nagusitzea lehengai eta salgaien artean — 5 puntura arte | Predominio de productos ecológicos entre las materias primas y mercancías — Hasta 5 puntos |
| Enbalajerik ez erabiltzea, gutxienekora murriztea edo azken bezeroari enbalajerik gabeko aukera eskaintzea — 5 puntura arte | Evitar el embalaje, reducirlo al mínimo o ofrecer a la clientela final una alternativa libre de embalaje — Hasta 5 puntos |
| Enbalaje konpostagarriak erabiltzea — 3 puntura arte | Utilización de embalajes compostables — Hasta 3 puntos |
| Bestalde, eskatzaileak 10 puntuko zigorra jasoko du hurrengo urteko deialdian, Udalak hala eskatuta eta berak antolatutako ekimen batean zerbitzua emateari uko egiteagatik. | Por otra parte, la persona solicitante será sancionada con 10 puntos en la próxima convocatoria anual por negarse a prestar el servicio a petición del Ayuntamiento y en una iniciativa organizada por él. |
| Era berean, eskatzaileak ezin badu zerbitzua ematera joan, berak eskatuta baimena eman zaion egunean eta orduan, udalari jakinaraziko dio astebete lehenago, zerrendan agertzen den hurrengo eskatzaileari zerbitzua ematen utz diezaion. Ezinbesteko kasuetan izan ezik, egoera hori jakinarazi ezean, pertsona fisiko edo juridiko baimendua urte bereko zerrendaren amaierara igaroko da. | Asimismo, si la persona solicitante no pudiera acudir a prestar el servicio, el día y hora para la que se le haya concedido autorización a petición suya, lo comunicará al Ayuntamiento con una semana de antelación, para que permita la prestación del servicio a la siguiente persona solicitante que figure en la lista. Salvo casos de fuerza mayor, a falta de comunicación de esta circunstancia, la persona física o jurídica |

| | |
|---|---|
| | autorizada pasará al final de la lista del mismo año. |
| Era berean, Udalak egindako ikuskapen baten ondorioz, alegatutako merezimenduren bat betetzen ez dela egiaztatzen bada, pertsona fisiko edo juridiko baimendua urte bereko zerrendaren amaierara igaroko da. | Asimismo, si como consecuencia de una inspección realizada por el Ayuntamiento se comprueba el incumplimiento de alguno de los méritos alegados, la persona física o jurídica autorizada pasará al final de la lista del mismo año. |
| *Zerbitzua euskaraz ematen dela ulertuko da langileetako bat, gutxienez, hizkuntza horretan komunikatzeko gai denean. Meritu gisa kontuan hartu ahal izateko, eskubide hori etengabe bermatu beharko da. Zerbitzua euskaraz emateko gaitasuna A2 mailako titulazioa aurkeztuta edo Euskara Zerbitzuarekin elkarrizkera eginda egiaztatuko da. | * Se entenderá que el servicio se presta en euskera cuando al menos una de las personas trabajadoras sea capaz de comunicarse en dicha lengua. Para que pueda ser tenido en cuenta como mérito deberá garantizarse permanentemente este derecho. La capacitación para prestar el servicio en euskera se acreditará mediante la presentación de la titulación del nivel A2 o mediante entrevista con el Servicio de Euskera. |
| **8. artikulua. Eskaerak aurkezteko epeak eta moduak.** | **Artículo 8. Plazos y formas de presentación de solicitudes.** |
| Eskatzaileak berak edo legezko ordezkariek aurkeztu beharko dituzte eskaerak, udalak prestatutako eskabide-orri normalizatuetan: | Las solicitudes deberán ser presentadas por la propia persona solicitante o por sus representantes legales, en instancia normalizada elaborada por el Ayuntamiento: |
| · Telematikoki, Hernaniko Udaleko erregistro elektronikoaren bidez. | · Telemáticamente, a través del registro electrónico del Ayuntamiento de Hernani. |
| · Aurrez aurre, Hernaniko Udaleko Herritarren Harrera Zerbitzuaren bulegoan: astelehen, asteazken eta ostiraletan 8:00etatik 14:00etara eta astearte eta ostegunetan 08:00etatik 18:30era. | · Presencialmente, en la oficina del Servicio de Atención Ciudadana del Ayuntamiento de Hernani: lunes, miércoles y viernes de 8:00 a 14:00 y martes y jueves de 08:00 a 18:30. |
| 2025 urteko ekitaldiko esleipen-zerrendan parte hartzeko eskaerak aurkeztu beharko dira ordenantza hau indarrean sartu eta 30 egun naturaleko epean. Aurrerantzean, dagokion urteko esleipen-zerrendan parte hartzeko eskaerak aurreko urteko azaroaren 1etik 15era aurkeztu beharko dira. | Las solicitudes para formar parte de la lista de adjudicación del ejercicio 2025 deberán presentarse en el plazo de 30 días naturales a partir de la entrada en vigor de esta ordenanza. En adelante, para formar parte de la lista de adjudicación del año correspondiente deberán presentarse entre el 1 y el 15 de noviembre del año anterior. |
| Baimen zehatzak eskatzeko, hau da, gertaera jakin bati lotutako furgoneta edota janari-postu bat instalatzeko, nahitaezkoa izango da esleipen- | Para la solicitud de permisos específicos, es decir, para la instalación de una furgoneta o puesto de comida asociado a un evento |

| | |
|---|---|
| zerrendan agertzea. Oro har, baimenak eskatzeko epea 15 egun naturalekoa izango da. | concreto, será obligatorio figurar en la lista de adjudicación. Con carácter general, el plazo de solicitud de permisos será de 15 días naturales. |
| Udalak antolatutako jaiekin zerikusia duten eskaeren kasuan, epe hori jaiak hasi baino 30 egun natural lehenago amaituko da. Eskaera horiek Kultura Sailera bideratu beharko dira. Gainerako kasuetan, baimenak Merkataritza eta Turismo Sailera zuzendu beharko dira. | En el caso de solicitudes relacionadas con fiestas organizadas por el Ayuntamiento, este plazo finalizará 30 días naturales antes del inicio de las mismas. Estas solicitudes deberán derivarse al Departamento de Cultura. En los demás casos, las autorizaciones deberán dirigirse al Departamento de Comercio y Turismo. |
| Urtaroko produktuekin lotutako kasuetan izan ezik (txurroak, izozkiak, gaztainak eta abar), baimenak, gehienez ere, hilabete bereko datetarako eman ahal izango dira. Eskabideak aurreko hilabeteko 1etik 15era bitartean egin beharko dira. | Salvo en los casos relacionados con productos estacionales (churros, helados, castañas, etc.), las autorizaciones podrán concederse, como máximo, para fechas del mismo mes. Las solicitudes deberán realizarse entre el 1 y el 15 del mes anterior. |
| **9. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.** | **Artículo 9. Documentación a presentar.** |
| Esleipen-zerrendaren parte izateko: | Para formar parte de la lista de adjudicación: |
| 1. Eskabide-orria (I. Eranskina). Udalak gonbidatzen zaitu euskara hutsezkoa erabiltzera.<br>2. Merezimenduen zerrenda (II. Eranskina).<br>3. Alegatzen diren merezimenduak egiaztatzeko agiriak.<br>4. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako legearen inguruko aitorpena (III. Eranskina).<br>5. Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren kopia.<br>6. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren alta eta ogasunarekin egunean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria, ofizioz hori egiaztatzeko baimena ematen ez bada.<br>7. Jardueraren titularraren alta eta Gizarte Segurantzarekin ordainketak egunean izatearen ziurtagiria.<br>8. Kontu korrontearen titulartasun-agiria.<br>9. Janari-furgonetaren edota postuaren errotulazioen, kartelen eta menuen argazkiak.<br>10. Erantzukizun zibileko asegurua eta horren | 1. Impreso de solicitud (Anexo I). El Ayuntamiento le invita a utilizar que está íntegramente en euskera.<br>2. Relación de méritos (II. Anexo).<br>3. Documentación acreditativa de los méritos alegados.<br>4. Declaración relativa a la ley para la igualdad de mujeres y hombres (III. Anexo).<br>5. Copia del Número de Identificación Fiscal.<br>6. Alta en el Impuesto de Actividades Económicas y certificado de estar al corriente con Hacienda, salvo que se autorice de oficio su comprobación.<br>7. Alta de la persona titular de la actividad y certificado de estar al corriente de los pagos con la Seguridad Social.<br>8. Certificado de titularidad de la cuenta corriente.<br>9. Fotografías de las rotulaciones, carteles y menús de la furgoneta de comida y/o puesto.<br>10. Seguro de responsabilidad civil y su |

| | |
|---|---|
| ordainagiria.<br>11. Araudi espezifikoek ezarritako baldintza higieniko-sanitarioak edo bestelakoak betetzen direla ziurtatzen duten agiri-espezifikoak.<br>12. Hala badagokio, ibilgailuak dagozkion ikuskapen teknikoak pasa izanaren eta beharrezkoak diren baimenak izatearen ziurtagiriak. | recibo.<br>11. Documentación específica que acredite el cumplimiento de los requisitos higiénico-sanitarios u otros establecidos por las normativas específicas.<br>12. En su caso, justificantes de que el vehículo ha pasado las inspecciones técnicas correspondientes y de que dispone de las autorizaciones necesarias. |
| Baimen zehatzak eskatzeko:<br>1. Eskaera orokor normalizatua, baimena eskatzen den ekimen eta egutegia zehaztuta, baita lanean arituko diren pertsonen datuak zehaztuta ere.<br>2. Esleipen-zerrendan parte hartzeko aurkeztu diren eta iraungi diren agiriak. | Baimen zehatzak eskatzeko:<br>1. Solicitud general normalizada con indicación del evento y calendario para el que se solicita autorización, así como los datos de las personas que van a trabajar.<br>2. Documentación presentada para formar parte de la lista de adjudicación que haya caducado. |
| Era berean, udalak eskabidea baloratu eta ebazteko beharrezkotzat jotzen dituen beste agiri batzuk aurkezteko eskatu ahal izango du. | Asimismo, el Ayuntamiento podrá requerir la aportación de cuanta documentación considere necesaria para la valoración y resolución de la solicitud. |
| **10. artikulua. Baimen kopurua, kokalekuak, ordutegiak eta mugak.** | **Artículo 10. Número de permisos, localizaciones, horarios y limitaciones.** |
| Ematen den baimenak jasoko du jarduera kokatzeko lekua, horren irekiera eta itxiera ordutegia baita bestelako mugak ere. Orokorrean, baimena emateak justifikatzen duen arrazoiaren arabera ezarriko dira ordutegiak eta kokalekuak. | La autorización que se conceda especificará el lugar de ubicación de la actividad, su horario de apertura y cierre, así como otras limitaciones. Con carácter general, los horarios y localizaciones se establecerán en función de la causa que justifique la autorización. |
| Garai jakin batekin lotutako produktuen (izozkiak, txurroak, etab.) salmentarekin zerikusia duten jardueren baimenei dagokienez, baimen bakarra emango da garai edo urte bakoitzeko. | En cuanto a las autorizaciones de actividades relacionadas con la venta de productos relacionados con una determinada época (helados, churros, etc.), se concederá una única autorización por cada época o año. |
| Gainerako kasuetan, bai jaiei lotutakoetan baita jaiekin zerikusirik ez dutenetan ere, orokorrean, baimen bakarra emango da ekitaldi bakoitzeko. Edozein kasutan, Udalak beharrezkotzat jotzen badu, baimen bat baino gehiago eman ahal izango du. | En los demás casos, tanto relativos a fiestas como no, con carácter general, se concederá un único permiso por cada evento. En todo caso, el Ayuntamiento podrá conceder más de un permiso cuando lo considere necesario. |

| | |
|---|---|
| **11. artikulua. Baimena etetea.**<br><br>Baimenak eten egin ahalko dira, kalte-ordainik jasotzeko aukerarik gabe, honako kasu hauetan:<br><br>1. Arau-hausteak jartzeagatik.<br><br>2. Interes publikoagatik, obrak egin behar direlako, baimendutako aldamioak jarri behar direlako edo larrialdiko egoerengatik okupatutako espazioak libre geratu behar duenean.<br><br>Ahal den neurrian, astebeteko aurrerapenarekin jakinaraziko zaio egoera baimendutako jarduerari. Baimenak bere efikazia errekuperatuko du etendura justifikatu duten inguruabarrak desagertzean, ebazpen administratibo baten beharrik gabe.<br><br>Interes publikoagatik baimena eteten bada, tasak proportzionalki itzultzeko ebazpena emango da, edo aldi baterako beste espazio bat ezarriko da —erabakia hartzeko baldintzek eragiten ez dutena—, ordenantza honetan adierazitako baldintzetan.<br><br>__III. TITULUA. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.__<br><br>**12. artikulua. Instalazioaren titularraren betebeharrak.**<br><br>Honako hauek dira baimendutako jardueren betebeharrak:<br><br>1. Eman zaion baimenarean arabaera zerbitzua ematea eta dagokion tasa ordaintzea, ezarritako epeetan. Ezinbesteko kasuetan izan ezik, eskatzaileak ezin badu zerbitzua ematera joan berak eskatuta baimena eman zaion egunean eta orduan, udalari jakinaraziko dio astebete lehenago, beranduenez.<br><br>2. Baimendutako eremuaren mugak eta ordutegiak errespetatzea, jasotako ebazpenaren arabera. | **Artículo 11. Suspensión de la autorización.**<br><br>Los permisos podrán ser suspendidos sin opción a indemnización en los siguientes casos:<br><br>1. Por la comisión de infracciones.<br><br>2. Cuando por razones de interés público, ejecución de obras, colocación de andamios autorizados o situaciones de emergencia, el espacio ocupado deba quedar libre.<br><br>En la medida de lo posible, se comunicará la situación a la actividad autorizada con una semana de antelación. El permiso recuperará su eficacia cuando desaparezcan las circunstancias que han justificado la suspensión sin necesidad de una resolución administrativa.<br><br>En caso de suspensión de la autorización por razones de interés público, se dictará resolución de devolución proporcional de las tasas o se establecerá un nuevo espacio temporal que no esté afectado por las condiciones en las que se ha adoptado la decisión, en los términos señalados en esta ordenanza.<br><br>__III. TITULO. DERECHOS Y DEBERES.__<br><br>**Artículo 12. Obligaciones de la persona titular de la instalación.**<br><br>Son obligaciones de las actividades autorizadas:<br><br>1. Prestar el servicio de acuerdo con la autorización concedida y abonar la tasa correspondiente en los plazos establecidos. Salvo fuerza mayor, si la persona solicitante no puede acudir a prestar el servicio el día y hora en que se le haya concedido la autorización a petición propia, lo comunicará al Ayuntamiento con una antelación mínima de una semana.<br><br>2. Respetar los horarios y los límites de la zona autorizada, de acuerdo con la resolución recibida. |

| | |
|---|---|
| 3. Kamioi-dendak edo postuak zerbitza ditzakeen janari eta edariak zerbitzatzea eta horiek zerbitzatzea soilik, non eta ez dagoen elikagaiak manipulatzeko zerbitzua mugatzen duen ebazpen espresurik. | 3. Servir y servir exclusivamente comidas y bebidas susceptibles de ser servidas por la camionería o puesto, salvo resolución expresa que limite el servicio de manipulación de alimentos. |
| 4. Udal-zerbitzuek ikusteko eta eskuratzeko moduan izatea baimena bera. | 4. Mantener visible y accesible para los servicios municipales la propia autorización. |
| 5. Instalazioak baimendutako espazioan edo jarduera martxan dagoen bitartean sortutako kalte guztien gaineko erantzukizuna hartzea. Titularrak bere kontura eta modu egokian konpondu beharko ditu kalte horiek, udaleko teknikarien gainbegiradapean. | 5. Responsabilizarse por todos los daños causados en el espacio autorizado por la instalación o durante el funcionamiento de la actividad. La persona titular deberá reparar estos daños a su costa y de forma adecuada, bajo la supervisión de las y los técnicos municipales. |
| 6. Jai giroari lotutako baimenen kasuetan, erasoen arretarako zerbitzuari buruzko euskarriak jendaurrean jartzea, indarkeria matxista eta arrazista kasuetarako aholku eta jarraibide protokoloari buruzko informazioa jasotzea, eta gune horietan jokabide matxista eta arrazistarik onartuko ez dela adieraztea. | 6. En los casos de permisos relacionados con el ambiente festivo, exponer al público los soportes relativos al servicio de atención a las agresiones, recibir la información sobre el protocolo de actuación y recomendaciones para casos de violencia machista y racista y declaración de que no se admitirán conductas machistas y racistas en dichos espacios. |
| 7. Ahozko, idatzizko eta irudi bidezko komunikazioa (kartelak, informazio orriak, iragarkiak...) ezsexista eta barneratzailea izango da beti. Hau da, sexuen arteko presentzia orekatua irudikatuko du, gorputz anitzak irudikatuko dira, eta, ez dira estereotipo sexistak eta edertasun-kanon hegemonikoak irudikatuko, ez idatziz, ez ahoz, ez irudi bidez. | 7. La comunicación oral, escrita e imagen (carteles, hojas informativas, anuncios...) será siempre no sexista e inclusiva. Es decir, representará una presencia equilibrada entre sexos, se representarán cuerpos diversos y no se representarán estereotipos sexistas ni cánones de belleza hegemónicos, ni por escrito, ni oralmente, ni por imágenes. |
| 8. Izaera orokorreko betebeharrez gain, instalazioaren titularrak obligazioa izango du okupatzeko baimendutako lurzorua nahiz instalazioa bera eta haren elementu osagarriak garbi, seguru eta txukun mantentzeko. Beraz, aldian behin erratza pasa eta garbitu egin beharko du, eta horretarako beharrezkoak diren baliabideak izan beharko ditu. Halaber, jarduera amaitutakoan, eremua garbi | 8. Además de las obligaciones de carácter general, la persona titular de la instalación estará obligada a mantener limpio, seguro y ordenado tanto el espacio autorizado para su ocupación como la propia instalación y sus elementos complementarios. Por tanto, deberá barrer y limpiar periódicamente, disponiendo de los medios necesarios para ello. Asimismo, una vez finalizada |

| | |
|---|---|
| utziko du eta sortutako hondakinak gaika sailkatuko ditu udalak adierazitako lekuan. | la actividad, dejará limpia la zona y procederá a la clasificación selectiva de los residuos generados en el lugar indicado por el ayuntamiento. |
| 9. Jardueraren titularrak bizilagunen lasaitasunerako eskubidea errespetatu beharko du. Hortaz, ez du onartu behar iskanbilarik, liskarrik edo zaratarik instalazio inguruan. | 9. La persona titular de la actividad deberá respetar el derecho a la tranquilidad de la vecindad. Por tanto, no debe tolerar alborotos, riñas o ruidos en las inmediaciones de las instalaciones. |
| **13. artikulua. Udalaren betebeharrak.** | **Artículo 13. Obligaciones del Ayuntamiento.** |
| Honakoak dira Udalaren betebeharrak: | Son obligaciones del Ayuntamiento: |
| 1. Okupazioaren baldintzak zehaztea, kokaleku zehatza adieraziz eta ordutegia zehaztuz. | 1. Determinar las condiciones de ocupación, indicando la ubicación exacta y horario. |
| 2. Espedienteetan entzunaldiko tramitea ematea, eta eskatzaile bakoitzari hartutako erabakiak jakinaraztea. | 2. Dar trámite de audiencia en los expedientes y notificar a cada solicitante las decisiones adoptadas. |
| 3. Baimena aldez aurretik eteteagatik bide publikoaren okupazioa amaitzean, dagokion zenbateko proportzionala itzultzea. | 3. Devolución del importe proporcional que corresponda a la finalización de la ocupación de la vía pública por suspensión anticipada de la autorización. |
| 4. Jai giroari lotutako baimenen kasuetan, erasoen arretarako zerbitzuari buruzko euskarriak helaraztea, eta indarkeria matxista eta arrazista kasuetarako aholku eta jarraibide protokoloari buruz informatzea. | 4. En los casos de permisos ligados a ambientes festivos, poner a disposición los soportes relativos al servicio de atención a las agresiones e informar sobre el protocolo de actuación y recomendaciones en los casos de violencia machista y racista. |
| 5. Ikuskapena egitea, eta eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioarekin eta baimena emateko baldintzekin bat datorrela egiaztatzea. | 5. Realizar inspección y comprobar que se ajusta a la documentación aportada por la persona solicitante y a las condiciones de la autorización. |
| **14. artikulua. Euskararen erabilera sustatzeko neurriak.** | **Artículo 14. Medidas de fomento del uso del euskera.** |
| Okupatutako eremuan jendearen eskueran eta bistan jartzen diren elementu guztiak euskaraz idatziko dira: menuak, prezioen zerrendak, kartelak, eskaintzen oharrak, arbeletako oharrak... Komunikazioa bermatzeko beste hizkuntzaren bat erabili behar bada, euskara lehenetsiko da. | Todos los elementos que se pongan a disposición y vista del público en la zona ocupada se redactarán en euskera: menús, listas de precios, carteles, notas de ofertas, notas de pizarras... En caso de que sea necesario utilizar otra lengua para garantizar la comunicación, se priorizará el euskera. |

| | |
|---|---|
| Kontuan hartuta Hernaniko egoera soziolinguistikoa (% 62 euskalduna eta % 17 ia euskalduna, Hernani UEMAko kide) zerbitzari eta bezeroekiko harremanetan erabiltzen den hizkuntza nagusia euskara izatea sustatuko da, betiere euskararen eta gaztelaniaren ofizialtasunari buruzko araudian jasotakoari jarraiki. | Teniendo en cuenta la situación sociolingüística de Hernani (62% euskaldun y 17% cuasi-vasco, miembro Hernani de UEMA) se promoverá que el euskera sea la lengua principal utilizada en las relaciones con el personal y la clientela, de acuerdo con lo recogido en la normativa sobre oficialidad del euskera y del castellano. |
| **IV. TITULUA. ZEHAPEN ERREGIMENA.** | **IV. TITULO. RÉGIMEN SANCIONADOR.** |
| **15. artikulua. Ikuskapenak.** | **Artículo 15. Inspecciones.** |
| Udaltzaingoak zaindu eta kontrolatuko du ordenantza hau betetzen dela. | La Policía Municipal vigilará y controlará el cumplimiento de esta ordenanza. |
| Udaltzaingoak edozein pertsona fisiko edo juridiko salatuko du ordenantzaren edo baimenaren baldintzak urratzeagatik. Horretarako, salaketa- idatzi bat aurkeztu beharko da, egiaztatzeko beharrezkoak diren datuak aurkeztuta eta Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Komunari buruzko 39/2015 Legearen 66. artikuluan jasotako xedapenak beteta. | La Policía Local denunciará a cualquier persona física o jurídica por infringir las condiciones de la ordenanza o autorización. Para ello, se deberá presentar un escrito de denuncia, aportando los datos necesarios para su acreditación y cumpliendo las previsiones contenidas en el artículo 66 de la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. |
| **16. artikulua. Udal baimenik ez duten instalazioak.** | **Artículo 16. Instalaciones sin autorización municipal.** |
| Udaltzaingoak berehala zigilatuko du udal-baimenik gabe jarritako janari-furgoneta edo postua, eta udal-zerbitzuen biltegian edo dagokion tokian utzi, hargatik eragotzi gabe hurrengo artikuluen arabera aplikatu beharreko zehapenak. | La Policía Local precintará inmediatamente la furgoneta o puesto de comida colocado sin autorización municipal y lo depositará en el almacén de los servicios municipales o lugar correspondiente, sin perjuicio de las sanciones que resulten de aplicación conforme a los artículos siguientes. |
| Derrigorrezko udal-baimenik gabe jarritako instalazioa kentzean, dagokion diruzko zehapena ezartzeaz gain, establezimendua desgaituta geratuko da ordenantza honetan araututako baimenak etorkizunean lortu ahal izateko, gehienez 2 urtez. | La retirada de la instalación instalada sin la preceptiva autorización municipal, además de la sanción pecuniaria correspondiente, inhabilitará al establecimiento para la obtención futura de las autorizaciones reguladas en esta ordenanza por un plazo máximo de 2 años. |
| **17. artikulua. Arau-hausteak.** | **Artículo 17. Infracciones.** |
| Arau-hausteak izango dira baimena emateko udal-ebazpenean jasotzen diren baldintzen kontrako edo, oro har, ordenantza honetan | Constituirán infracciones todas las acciones u omisiones contrarias a las condiciones contenidas en la resolución municipal de |

| | |
|---|---|
| xedaturikoaren kontrako ekintza edo ez-egite guztiak.<br><br>Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.<br><br>1. Arau-hauste arinak.<br><br>a) Baimendutako espazioa ez den beste espazio bat okupatzea.<br>b) Okupatutako eremua ez garbitzea modu egokian.<br>c) Musika-aparatuak, bozgorailuak edo ikus-entzuneko elementuak instalatzea.<br>d) Auzokoen atsedena errespetatzen ez duen zarata sortzea.<br>e) Ordenantzako baldintzak ez betetzeagatik arau-hauste larri edo oso larri gisa tipifikatu gabe dagoen beste edozein ekintza edo ez-egite, betiere nahita egina ez bada edo ez betetzea behin eta berriro gertatzen ez bada.<br><br>2. Arau-hauste larriak.<br><br>a) Urtebeteko epean hiru arau-hauste arin edo gehiago pilatzea.<br>b) Baimendu gabeko espazioak okupatzea: oinezkoen zirkulazioari traba egiten diotenak, edo larrialdiko zerbitzuen, zerbitzu publikoen, eraikinen (atariak, garajeak, etab) edo merkataritzako lokalen sarbidea edo segurtasuna eragozten dutenak eta trafikoaren ikusgaitasuna zailtzen dutenak.<br>c) Ordenantza honetan zehazturiko irekitzeko edo ixteko ordutegia ez betetzea, 20 minutu baino gehiagoz eta 60 minutura arte.<br><br>3. Arau-hauste oso larriak.<br><br>a) Urtebeteko epean hiru arau-hauste larri edo gehiago egitea.<br>b) Baimenik eskatu edo lortu gabe jartzea.<br><br>c) Eremua baimendu gabeko jarduera bat egiteko erabiltzea.<br>d) Baimenik ez izateagatik instalazioa kentzeko edo baldintzak betetzen ez dituzten elementuak kentzeko agindua ez betetzea. | otorgamiento de la autorización o, en general, a lo dispuesto en esta ordenanza.<br><br>Las infracciones se clasifican en leves, graves y muy graves.<br><br>1. Infracciones leves.<br><br>a) La ocupación de un espacio distinto del autorizado.<br>b) No limpiar adecuadamente la zona ocupada.<br>c) La instalación de aparatos musicales, altavoces o elementos audiovisuales.<br>d) Producir un ruido que no respete el descanso vecinal.<br>e) Cualquier otra acción u omisión no tipificada como infracción grave o muy grave por incumplimiento de los requisitos de la ordenanza, siempre que no sea intencionada o el incumplimiento no sea reiterado.<br><br>2. Infracciones graves.<br><br>a) La acumulación de tres o más infracciones leves en el plazo de un año.<br>b) Ocupación de espacios no autorizados que dificulten la circulación peatonal, el acceso o la seguridad de servicios de urgencia, servicios públicos, edificios (portales, garajes, etc.) o locales comerciales y dificulten la visibilidad del tráfico.<br>c) Incumplir el horario de apertura o cierre establecido en esta Ordenanza, durante más de 20 minutos y hasta 60 minutos.<br><br>3. Infracciones muy graves.<br><br>a) La comisión de tres o más infracciones graves en el plazo de un año.<br>b) Instalarse sin solicitar o obtener autorización.<br>c) Utilizar la zona para realizar una actividad no autorizada.<br>d) El incumplimiento de la orden de retirada de la instalación o de los elementos que por no estar autorizados no cumplan las |

| | |
|---|---|
| e) Jabari edo erabilera publikoko ondasunetan edo alboko ondasunetan kalte larriak eragiten dituzten ekintzak edo ez-egiteak.<br>f) Trafikoarekin, urbanizazioarekin, interes orokorrarekin edo udal-interesarekin lotutako arrazoiengatik instalazioa jasotzeko eta kentzeko agindua eta epeak ez betetzea.<br>g) Emandako eskubidea iraungitzean janari-furgoneta edo postua jasotzeko eta kentzeko eta okupatutako espazioa hutsik uzteko agindua eta epeak ez betetzea.<br>h) Baimena alokatzea, lagatzea edo eskualdatzea.<br>i) Ordenantza honetan zehazturiko irekitzeko edo ixteko ordutegia ez betetzea, 60 minutu baino gehiagoz. | condiciones.<br>e) Las acciones u omisiones que causen graves perjuicios a los bienes de dominio o uso público o colindantes.<br>f) El incumplimiento de la orden y plazos de recogida y retirada de la instalación por razones de tráfico, urbanización, interés general o interés municipal.<br>g) El incumplimiento de la orden y de los plazos para recoger y quitar la furgoneta restaurante o el puesto y dejar vacío el espacio ocupado al extinguirse el derecho concedido.<br>h) Alquiler, cesión o transmisión del permiso.<br>i) El incumplimiento del horario de apertura o cierre establecido en la presente Ordenanza, por tiempo superior a 60 minutos. |
| **18. artikulua. Zehapenak.** | **18. artikulua. Zehapenak.** |
| Zehapenen erregimena 1/2023 Legea, martxoaren 16koa, Euskal Administrazio Publikoen Zehatzeko Ahalari buruzkoa-ren arabera aplikatuko da eta baimena tramitatzen duen sailak zehaztuko du. | El régimen sancionador se regirá por la Ley 1/2023, de 16 de marzo, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas Vascas y será determinado por el Departamento que tramite la autorización. |
| Zehapenaren graduazioa modu arrazoituan zehaztuko da, inguruabarrak kontuan hartuta; besteak beste, hauek: ekintza nahita egina izatea; sortutako kalteen larritasun handiagoa edo txikiagoa; ordena gehiago edo gutxiago oztopatzea; ekintza edo ez-egitea errepikatzea; beste pertsona edo jarduera batzuen eskubideen lasaitasun edo jardun baketsuan sortutako eragozpen maila; osasun-egoeran eta apaingarri publikoetan sortutako eragozpenen maila; zerbitzu edo espazio publiko bat erabiltzeko pertsonek duten eskubidean sortutako eragozpen-maila; zerbitzu publiko baten funtzionamendu normalean sortutako eragozpenaren maila; zerbitzu edo espazio publiko edo pribatu baten ekipamendu, azpiegitura, instalazio edo elementuetan sortutako kalteen maila; kontuan hartzeko modukoa izan daitekeen beste edozein inguruabar. | La graduación de la sanción se determinará de forma motivada, atendiendo a las circunstancias que concurran, tales como: la intencionalidad de la acción; la mayor o menor gravedad de los daños causados; la mayor o menor perturbación del orden; la reiteración de la acción u omisión; el grado de perturbación producida en la tranquilidad o práctica pacífica de los derechos de otras personas o actividades; el grado de molestias producidas en el estado de salud y de ornato público; el grado de molestia causada en el derecho de las personas a utilizar un servicio o espacio público; el grado de impedimento producido en el normal funcionamiento de un servicio o espacio público; el grado de daños causados en equipamientos, infraestructuras, instalaciones o elementos de un servicio o espacio público o privado; cualquier otra circunstancia que pueda ser tenida en cuenta. |
| Zehapen bat jartzeak ez du murrizten sortutako kalte-galerak ordaintzeko obligazioa. | La imposición de una sanción no reduce la obligación de indemnizar los daños y perjuicios causados. |

| | |
|---|---|
| Zehapenak mota askotakoak izan daitezke: ohartarazpen hutsa, diruzko zehapena edo isuna, baimena aldi baterako etetea eta instalazioa kentzera edo zigilatzera behartzea, eta baimena ezeztatzea eta instalazioa kentzera behartzea.<br>Tipifikatutako arau-hausteei zehapen hauek aplikatuko zaizkie:<br><br>1. Arau-hauste arin bakoitzeko, ohartarazpena edo 500 euro arteko isuna.<br><br>2. Arau-hauste larri bakoitzeko, baimena aldi baterako etetea eta instalazioa kentzera edo zigilatzera behartzea, gehienez hilabete batez, eta 501-1.500 euro arteko isuna.<br><br>3. Arau-hauste oso larri bakoitzeko, baimena aldi baterako etetea eta instalazioa kentzera edo zigilatzera behartzea, gehienez sei hilabetez, eta 1.501-3.000 euro arteko isuna, edo baimena baliogabetzea, eta 3.000 euro arteko isuna, instalazioak kentzeko obligazioarekin batera.<br><br>Zigortutako arau-hausteak behin eta berriz errepikatuz gero, honako graduazio hau aplikatuko da isunean, eta, horrez gain, baimena etetea eta instalazioa bide publikotik kentzea edo zigilatzea aginduko da, epe hauetan:<br><br>1. Urtean bi arau-hauste arin edo gehiago eginez gero, bigarrenari 300 euroko graduazioa ezarriko zaio, eta hurrengoan, arau-hauste larritzat jotzen denez gero, baimena eten egingo da eta instalazioak kentzera eta zigilatzera behartuko da establezimendua, gehienez hilabete batez, eta, hala badagokio, 301 euro eta 600 euro arteko isuna ezarriko zaio.<br><br>2. Urtean bi arau-hauste larri edo gehiago eginez gero, bigarrenari 600 euroko graduazioa ezarriko zaio, eta hurrengoan, | Las sanciones pueden ser de varios tipos: simple amonestación, sanción pecuniaria o multa, suspensión temporal de la autorización y obligar a retirar o precintar la instalación, y revocar la autorización y obligar a retirar la instalación.<br>A las infracciones tipificadas se les aplicarán las siguientes sanciones:<br><br>1. Apercibimiento o multa de hasta 500 euros por cada infracción leve.<br><br>2. Por cada infracción grave, la suspensión temporal de la autorización y la obligación de retirar o precintar la instalación durante un plazo máximo de un mes, con multa de 501 a 1.500 euros.<br><br>3. Por cada infracción muy grave, la suspensión temporal de la autorización y la obligación de retirar o precintar la instalación por un periodo máximo de seis meses, con multa de 1.501 a 3.000 euros, o la revocación de la autorización, y multa de hasta 3.000 euros, junto con la obligación de retirar las instalaciones.<br><br>En caso de reiteración de las infracciones sancionadas, se aplicará la siguiente graduación en la multa, además de ordenar la suspensión de la autorización y la retirada de la instalación de la vía pública o precinto en los siguientes plazos:<br><br>1. Si se cometen dos o más infracciones leves al año, la segunda será castigada con una graduación de 300 euros y en la siguiente, al considerarse infracción grave, se suspenderá la autorización y se obligará al establecimiento a retirar y precintar las instalaciones durante un máximo de un mes y, en su caso, se le impondrá una multa de entre 301 euros y 600 euros.<br><br>2. Si se cometen dos o más infracciones graves al año, la segunda será castigada con la graduación de 600 |

| | |
|---|---|
| arau hauste oso larritzat jotzen denez gero, baimena eten eta baliogabetu egingo da eta instalazioak kentzera eta zigilatzera behartuko da establezimendua, gehienez hiru hilabetez edo behin betiko —baimena baliogabetuz—, eta, hala badagokio, 601 euro eta 1.000 euro arteko isuna ezarriko zaio. | euros y en la siguiente, al ser tipificada como infracción muy grave, se suspenderá y revocará la autorización y se obligará al establecimiento a retirar y precintar las instalaciones por un periodo máximo de tres meses o definitivo, con revocación de la autorización y, en su caso, multa de 601 euros a 1.000 euros. |
| **19. artikulua. Arau-hausteen murrizketak.** | **Artículo 19. Reducciones de las infracciones.** |
| 1. Goian esandako murrizketaz baliatuz egindako ordainketa arinek dakarte alegazioak eta helegiteak egiteari uko egitea eta prozedurari berariazko ebazpena egin beharrik gabe amaiera ematea. | 1. Los pagos que se realicen en virtud de las reducciones arriba indicadas suponen la renuncia a la formulación de alegaciones y recursos y la terminación del procedimiento sin necesidad de resolución expresa. |
| Arau-haustearen erantzuleak zehapen espedientea ireki eta bere erantzukizuna aitortzen badu, eman beharreko ebazpenak % 20ko murriztapena aplikatuko du. | Cuando la persona responsable de la infracción incoe expediente sancionador y reconozca su responsabilidad, la resolución a dictar aplicará una reducción del 20%. |
| Era berean, ebazpena eman aurretik, erantzuleak bere borondatez ordaintzen badu, nahiz eta erantzukizunik aitortu ez, diruzko isuna %20 murriztuko zaio. Bi baldintzak ematen badira, murriztapena % 40koa izango da. | Asimismo, si antes de dictar resolución, la persona responsable paga voluntariamente, aunque no se le haya reconocido responsabilidad, se le reducirá la multa pecuniaria en un 20%. Si se dan ambas condiciones, la reducción será del 40%. |
| Murrizketa horietaz baliatuz egindako ordainketa arinek dakarte alegazioak eta helegiteak egiteari uko egitea eta prozedurari berariazko ebazpena egin beharrik gabe amaiera ematea. | Los pagos que se realicen al amparo de estas reducciones suponen la renuncia a la formulación de alegaciones y recursos y la terminación del procedimiento sin necesidad de resolución expresa. |
| 2. Isuna irmo bihurtzen denetik aurrera, hurrengo hamabost egun baliodunetan, isunaren kopuru nominala ordaindu ahal izango da. | 2. Dentro de los quince días hábiles siguientes a que la multa sea firme, podrá abonarse el importe nominal de la multa |
| 3. Aurreko atalean ordaintzeko ezarritako epea bukatu eta isuna ordaindu gabe baldin badago, isunaren ordainaraztea premiamendu bidez egingo da, eta dagozkion errekarguak aplikatuko zaizkio. | 3. Transcurrido el plazo para el abono establecido en el apartado anterior sin que la multa hayasido abonada, se procederá por la vía de apremio, aplicándose los recargos correspondientes. |
| **20. artikulua. Zehapen preskripzioa.** | **Artículo 20. Prescripción de sanciones.** |
| 1. Arau-hauste arinak urte bat igarota preskribatuko dira, larriak hiru urte igarota eta, oso larriak bost urtetara. | 1. Las infracciones leves prescribirán al año, las graves a los 3 años y las muy graves a los 5 años. |

2. Arau-hauste preskribatze data arau-haustea gertatu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen.

2. La fecha de prescripción de la infracción comenzará a contarse a partir del día siguiente al de su comisión.

3. Zigor espedientearen hasierarekin preskribatze-epea eten egingo da, betiere arau-hauslea jakinaren gainean jarri ondoren. Handik aurrera, espedientea hilabetez geldirik badago, arau-hauslearen errurik gabe, berriro martxan jarriko da preskripzio epea.

3. El inicio del expediente sancionador interrumpirá el plazo de prescripción, previo conocimiento de la persona infractora. A partir de entonces, si el expediente está paralizado durante un mes, sin culpa de la persona infractora, se reanudará el plazo de prescripción.

4. Arau-hauste oso larriengatik ezarritako zigorrak 5 urteren buruan preskribatuko dira, arau-hauste larriengatik ezarritakoak hiru urteren buruan eta, arau-hauste arinengatik ezarritakoak urtebeteren buruan.

4. Las sanciones impuestas por infracciones muy graves prescribirán a los 5 años, las impuestas por infracciones graves a los tres años y las impuestas por infracciones leves al año.

5. Zigorren preskribatze-data zigorraren ebazpen irmoa ematen den hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen.

5. La fecha de prescripción de las sanciones comenzará a contarse desde el día siguiente a aquel en que recaiga resolución firme.

6. Arau-hausleari premiamenduzko bidearen hasieraren berri ematen zaionean emango da preskribatze-epearen etetea. Handik aurrera, espedientea hilabetez geldirik badago, arau-hauslearen errurik gabe, berriro martxan jarriko da preskripzio epea.

6. La suspensión del plazo de prescripción se producirá cuando la persona infractora haya sido informada del inicio de la vía de apremio. A partir de entonces, si el expediente está paralizado durante un mes, sin culpa de la persona infractora, se reanudará el plazo de prescripción.

7. Zehatzeko ahalmena preskribatuta egon arren, Hernaniko Udalak gauzak lehen zeuden moduan uzteko eskatu ahal izango die erantzuleei, igarotako denbora kontuan hartu gabe.

7. A pesar de la prescripción de la potestad sancionadora, el Ayuntamiento de Hernani podrá requerir a quienes sean responsables para la reposición de las cosas a su estado anterior, con independencia del tiempo transcurrido.

**21. artikulua. Exekuzio subsidiarioa.**

**21. artikulua. Exekuzio subsidiarioa.**

1. Instalazioaren arduradunak ez badio kasurik egiten bide publikoan instalatutako elementuak kentzeko udal aginduari ordenantza honetan aurreikusitako kasuetan, udalak aukera izango du, subsidiarioki instalazioa kentzeko. Kasu horretan, dagokien lekuan utziko dira, izan Udal Zerbitzu Publikoetako biltegiak edo bestelakoak, eta jabeak handik hartu ahalko ditu, baina, aurrez, gastuak ordaindu beharko ditu, Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Erkideari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean

1. Cuando la persona responsable de la instalación hiciera caso omiso de la ordenmunicipal de retirada de los elementos instalados en la vía pública, en los supuestos previstos en esta ordenanza, el ayuntamiento podrá proceder subsidiariamente a la retirada de la instalación, quedando depositada en el lugar designado para ello, de donde podrá ser retirada por la entidad propietaria, previo abono de los gastos correspondientes, todo ello de conformidad con lo dispuesto en la

| | |
|---|---|
| xedaturikoarekin bat. | Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. |
| 2. Artikulu honetan xedaturikoaren arabera kendu diren elementuak ezin izango dira egon udal-biltegi batean gordeta 6 hilabetetik gorako epean. Epe hori igaro ondoren interesatuak ez baditu handik atera, udalak suntsitu, saldu edo laga egingo ditu. | 2. Los elementos que hayan sido retirados conforme a lo dispuesto en este artículo no podrán permanecer en depósito durante un período superior a 6 meses. Transcurrido dicho plazo sin que por la persona interesada se hayan retirado, el Ayuntamiento podrá proceder a su destrucción, venta o cesión. |
| XEDAPEN IRAGANKORRA. | DISPOSICIÓN TRANSITORIA. |
| Ordenantza hau indarrean jartzean tramitazio-fasean dauden baimenen kasuan, xedapen hauetara egokitu beharko dira egin beharreko tramiteak eta aurkeztu beharreko dokumentuak. | En el caso de autorizaciones que se encuentren en fase de tramitación a la entrada en vigor de esta Ordenanza, los trámites a realizar y la documentación a presentar deberán ajustarse a estas disposiciones. |
| 2025 urteko ekitaldiko esleipen-zerrendan parte hartzeko eskaerak aurkeztu beharko dira ordenantza hau indarrean sartu eta 30 egun naturaleko epean, dagoeneko emanda dauden baimenei kalterik egin gabe. | Las solicitudes para participar en la lista de adjudicación del ejercicio 2025 deberán presentarse en el plazo de 30 días naturales desde la entrada en vigor de esta ordenanza, sin perjuicio de las autorizaciones ya concedidas. |
| XEDAPEN GEHIGARRIA. | DISPOSICIÓN ADICIONAL. |
| Euskarazko eta espainierazko testuen artean kontraesanik edo inkoherentziarik antzemanez gero, euskarazko testuak izango du balioa. | En el caso de que se detecten contradicciones o incoherencias entre los textos en euskera y en español, será válido el texto en euskera. |
| AZKEN XEDAPENA. | DISPOSICIÓN FINAL. |
| Ordenantza hau indarrean sartuko da testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 70. artikuluko 2. zenbakian aipatutako tramiteak betetakoan. | La presente disposición entrará en vigor una vez publicado el texto íntegro en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y cumplidos los trámites a que se refiere el apartado 2 del artículo 70 de la Ley de Bases de Régimen Local. |
| Hernaniko Udalbatzak erabaki zuen, 2025eko maiatzaren 27an egindako ohiko osoko bilkuran, hasierako onespena ematea erregelamenduari. | El Pleno del Ayuntamiento de Hernani, en sesión ordinaria que tuvo lugar el 27 de mayo de 2025 aprobó inicialmente el reglamento. |

| | |
|---|---|
| 2025eko ekainaren 6an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen hasierako onarpenaren iragarkia eta 30 egun baliodunez espedientea jendaurrean jarri da eta interesdunei entzunaldi epea eman zaie, hernani.eus atariko iragarki taulan; argitaratua egon da epe berean, espedientea jendaurrean jarriz eta interesdunei entzunaldi epea emanez.<br><br>Alegaziorik, erreklamaziorik edo inolako iradokizunik aurkeztu ez denez behin-behineko onarpena behin betiko onespena bihurtu da, eta ordenantza indarrean sartuko da, horrela xedatzen baitu apirilaren 2ko 7/1985eko Toki-Araubidea arautzen dituen Legearen 70.2 artikuluak. | Con fecha de 6 de junio del 2025 se publicó en el Boletin Oficial de Gipuzkoa el anuncio referente a la aprobacion inicial y antes de la entrada en vigor se sometió el expediente a información pública y audiencia por un periodo de treinta días hábiles. También ha estado publicado durante el mismo plazo en la pagina web corporativa hernani.eus, en el tablón de anuncios para el trámite de información y audiencia publica.<br><br>Al no haberse presentado ninguna alegación, reclamación ni sugerencia, la aprobación provisional se transforma en definitiva y el reglamento entrará en vigor de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local. |

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa

Hernaniko udal-idazkaria
Hernanin 2025eko uztailaren 18an

<u>Anexo</u>

| Infracciones | Multa |
| --- | --- |
| a) La ocupación de un espacio distinto del autorizado. | 500 € |
| b) No limpiar adecuadamente la zona ocupada. | 250 € |
| c) La instalación de aparatos musicales, altavoces o elementos audiovisuales. | 300 € |
| d) Producir un ruido que no respete el descanso vecinal. | 300 € |
| e) Cualquier otra acción u omisión no tipificada como infracción grave o muy grave por incumplimiento de los requisitos de la ordenanza, siempre que no sea intencionada o el incumplimiento no sea reiterado. | ≤ 500 € |